



T A P U N T U

BIG BANG GUNEA ERABILTZEKO ARAUDIA

1. Definizioa
2. Ordutegia
3. Jarduerak
4. Baliabideak
5. Erabiltzaileak
6. Erabiltzeko irizpideak
7. Neurri zuzentzaileak

DESKRIBAPENA

Big Bang gunea TaPuntu Kooperatiba Elkarte Txikiak Usurbilgo bulegoan duen erabilera anitzeko aretoa da.

TaPuntuk gune hau sortu nahi izan du, bere ekintzez gain besteenak ere posible egiteko.

TaPuntu Kooperatiba **Big Bang gunean** egingo diren jardueren kudeaketa eta jarraipenaz arduratuko da.

TaPuntuk gune hau modu egokian kudeatzeko araudi hau sortu du. kontratatzailearen ardura da araudi hau ondo irakurri eta betetzea.

ORDUTEGIA

TaPunturen bulegoak ordutegi zehatz bat du, eta giltzen hartu-emana ordutegi horretan egin beharko da.

Urtean zehar

Astelehenetik ostegunera: 8:00 – 16:00

Ostiraletan: 8:00 – 15:00

Udaran (Ekainak 15 – Irailak 15)

Astelehenetik ostiralera: 8:00 – 15:00

Big Bang gunearen erabilerari dagokionez, honako hau izango da erabili ahal izateko ordutegia.

Astelehenetik ostiralera: 8:00 – 22:00

Larunbatetan: 8:00 – 14:30

Jai egunak: **Big Bang guneak** Jai egunen egutegi propio bat du TaPuntu.eus/big-bang-gunea web-orrian ikusi ahal izango da. Jai egun horietan ezingo da **Big Bang gunea** erabili.

T A P U N T U

JARDUERAK

Big Bang guneako jarduerak honelakoak izango dira: kulturalak, artistikoak, hezitzaileak, soziokulturalak eta ludikoak; esate baterako:

- Aurkezpenak
- Formazioak
- Hitzaldiak
- Mintegiak
- Solasaldiak
- Bilerak

Aipaturiko jarduera hauek guztiak izango dira lehentasuna izango dutenak.

Erabilera horiek ez dituzten bestelako jarduerak, TaPuntu Kooperatibarekin adostu beharko dira, eta TaPuntuk izango du jarduera burutu daitekeenaren azken erabakia.

BALIABIDEAK

Big Bang guneako baliabideak zerrendatuko ditugu jarraian. Baliabide hauen erabilpena soilik onartuta dago:

Atsedeen gunea

- Komuna (*Zulo Beltza*)
- Sukaldea (*Esne Bidea*)

Big Bang gunea

- Mahaiak
 - Irakasle edo gidariarena
 - 3 lagunentzako 4 mahai.
- Ahulkiak (*13 ahulki*)
- Irakasle edo gidariarentzat ordenagailua
- Proiektorea (*RGB, VGA*)
- Pantaila/arbela
- Wifia eta sarea
- Aire girotua

Gehigarriak

Aurrekoetaz gain, kontratatzaileak nahi izanez gero, TaPuntuk horrelako baliabideak lortu ahal izango ditu (*kostu gehigarri bat izanik*):

- Katerin zerbitzua
- Ura
- Ordenagailuak

ERABILTZAILEAK

Big Bang gunearen erabiltzaileak kontratatzailearen ardura izango dira. Erabiltzaileei arauak helaraztea kontratatzailearen ardura izanik, eta erabiltzaileen edozein ekintza Big Bang gunearen kontratatzaileak beregain jasan beharko du.

Kontratatzaileak pertsonak ala erakundeak izan ahalko dira.

Kontratatzaile posibleen zerrenda:

- Enpresak
- Erakundeak
- Udalak
- Elkarteak
- Norbanakoak

Erabiltzaileen arduradunak, hau da, kontratatzaileak, TaPuntuk helaraziko dion kontratua sinatu beharko du **Big Bang gunea** erabili ahal izateko.

Kontratatzaileak erantzunkizun zibilaren gaineko aseguru beharko du.

ERABILTZeko IRIZPIDEAK

Big Bang gunea erabiltzeko orduan kontutan izan beharreko irizpideak:

- Aretoa eta bere ekipamenduaren erabilera baimena puntuala izango da.
- Sarrera eta irteerak tamaina handiko trabarik gabe izango dira.
- Jarduerak irauten duten bitartean, larrialdi irteerak ez dute trabarik izan beharko.
- **Big Bang gunea** erabiltzen duten talde zein norbanakoek hau zaintzeko eta txukun mantentzeko konpromisoa hartuko dute. Erabilera kaskarraren ondorioz sortutako kalteak bere gain hartuko ditu kontratatzaileak, eta arazoaren larritasunaren arabera ukatu egingo da aretora sarbidea.
- Kontratatzaileak baliabideak sartzean zegoen bezala utzi beharko ditu.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Big Bang gunearen arau-haustek eta zehazpenak

- Entitate antolatzaile guztiek euren gain hartuko dituzte eskatzen ahal zaizkien erantzukizun zibilak, penalak, administratiboak, lan edo zerga arlokoak, edo edozein tankeratakoak, eta euren kontura geldituko dira erantzukizun horietatik etortzen diren kalte eta galeren ordainak, TaPuntu arruntean salbu geldituko baita horrelakoetatik.
- TaPuntuk ez du inongo erantzukizunik izango jendeak egiten dituen ekintzen-gatik, ezta euren iritziengatik.
- Arau-haustetzat joko da:
 - Jabetzaren kontrako delitu eta hutsegiteak.
 - Instalazio eta zerbitzuen erabilera desegokia.
 - Gunean eta baliabideetan kalteak eragitea.

Hauteako edozein arau-haustek TaPuntuk ezarritako isuna ekonomikoa ekar dezake. Era berean, arauak haustek ere **Big Bang gunea** gehiago ez erabiltzearen zigorra ekar dezake.